

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak Nafarroako zerbitzu publikoen kalitatearen VI. Sariketa antolatu du

Jardunbide egokiak eta berrikuntza sustatzen ditu

Jueves, 19 de enero de 2012

Nafarroako Gobernuak Nafarroako zerbitzu publikoen kalitatearen VI. Sariketa antolatu du administrazio publikoetan. Hautagaitzak aurkezteko epea ekainaren 30a arte zabalik izango da, lehen lehendakariorde eta Lehendakartzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilari, Roberto Jiménez-en [1/2012 foru-aginduan](#) jasotzen denaren arabera.

Sariketa honek Administrazioaren beraren barnean jardunbide egokiak aitortzea dakar, berrikuntza lehenetsiz. Epaimahaiak finkatutako eta ezarritako esperientziak edo proiektuak aztertuko ditu, eta haien bitartez emandako zerbitzuen kalitatea hobetzea edota arazo edo behar bat konpontzea lortu dena.

Sari bakarra emango da –eman gabe gera daiteke-, nahiz eta behar besteko merezimenduak dituzten hautagaitzei accesit-ak eman ahal izango zaizkien. Sariak lehen lehendakariorde eta Lehendakartzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilari, Roberto Jiménez-ek banatuko ditu Bikaintasunaren Nafarroako Egunaren ekitaldian zehar.

Aurkeztutako memoriak Nafarroako Gobernuaren webgunean argitaratuko dira eta saritutako hautagaitzak politika publikoen eta zerbitzu publikoen kalitateko Ebaluazio Erregistroan inskribatuko dira herritarrek kontsultatzeko aukera izan dezaten.

Hautagaitzak politika publikoen eta zerbitzu publikoen kalitatearen ebaluazioko Foru Batzordearen aurrean aurkeztu beharko dira, Iruñean, Navarrería kaleko 39. zenbakian egoitza duena. sercalinap@navarra.es helbidearen bidez edo administrazio-prozedura erkidearen 30/1992 Legean aurreikusitako beste edozein bideren bitartez ere eman ahal izango dira.

Deialdian ezingo dute parte hartu 2012. urteko Bikaintasunaren Nafarroako Sarira aurkezten direnak. Aurreko deialdietan irabazle izan diren organo, unitate eta erakundeek berriz lehiatu ahal izango dute, baldin eta saritutakoen aldean hobekuntza ezberdinak aurkezten badituzte.

Iaz, V. Saria Hezkuntzako Ikuskaritza Zerbitzuak lortu zuen, "Oinarrizko eskola-gaitasunak garatzeko proiektua: hobetzeko ziklo bat" lanarekin, eta accesit-ak eskuratu zituzten: Nafarroako Osasun Zerbitzuak eta Lan Osasuneko Nafarroako Institutuak, biek elkartuta "Aldi baterako ez gaitasunaren kudeaketa klinikoa. Aldi baterako ez gaitasuna osasun-irizpideekin izapidetzeko prozedura berria" jardunbide egokia aurkezteagatik, eta ANIMSArekin batera Iruñeko Udalak aurkeztutako

"Zergatik ez berrerabili? "lanagatik, 010 kalitate-sistema Herritarrentzako Arreta Zerbitzu guztian INTEGRATZEKO esperientzia.

Hautagitzak aurkezteko erakundeak animatzeko NAPIn jardunaldi bat antolatzea aurreikusita dago; bertan aurreko edizioetan saria jasotzen duten jardunbide egokiak aurkeztuko dira. Aurkeztu nahi duten taldeei memoria lantzen lagunduko dieten prestakuntza-tailerrak egitea ere aztertzen da.